

KANALAK

Full Scanner enpresan, gure balio-proposamena (hortz-klinikei abiadura eta zehaztasuna eskaintzea **Fast-time** scanner-aren bidez) bezeroarengana modu eraginkorrean iristeko, kanal-egitura sendo bat diseinatu dugu. Kanal hauek prozesuaren fase guztietan (pertzepzioa, ebaluazioa, erosketa, entrega eta salmenta ondorengoa) bermatzen dute zerbitzu bikaina.

1. Kanal Motak

Gure merkatu-segmentuaren izaera teknikoa dela eta, bi bide nagusi erabiliko ditugu:

- **Kanal Zuzenak (Propioak):**
 - **Salmenta-indarra**→ Gure talde komertzial espezializatua kliniketara joango da **frogaketak egitera**. Hau funtsezkoa da produktuaren teknologia zuzenean erakusteko.
 - **Internet (Webgunea)** → Gure ataria informazio-iturri nagusia izango da, non bezeroek **Fast-time-ren zehaztapenak** ikusi eta **aurrekontuak eskatu** ahal izango dituzten.
- **Zeharkako Kanalak (Elkartuak):**
 - **Banaketa-enpresa dentalak**→ Sektorean ezarrita dauden handizkariekin egingo dugu lan, gure scanner-ak haien **katalogoetan sartzeko** eta lurralde osora azkar iristeko.

2. Kanalaren Faseak Fast-time scanner-erako

Gure bezeroaren esperientzia 5 urrats hauetan banatzen da:

1. **Pertzepzioa (Jakinaraztea)** → Sektoreko kongresu dentaletan parte hartuz, aldzkari espezializatuetan **publizitatea eginez** eta sare sozial profesionalen (**Linkedin**) bidez emango dugu ezagutzera Fast-time scanner-a.
2. **Ebaluazioak** → Bezeroak gure **balio-proposamena ebaluatzeko**, doako **erakustaldiak** eskainiko ditugu klinikan bertan.
3. **Erosketa**→ Salmenta gure talde komertzialaren bidez edo banatzaile baimenduen bidez gauzatuko da, finantziazio-aukerak erraztuz.
4. **Entrega**→ Fast-time scanner-a **zuzenean klinikan instalatuko** dugu. Entrega honek hasierako konfigurazioa eta gailuaren erabilera egokirako prestakuntza barne hartzen ditu.
5. **Salmenta ondorengoa**→ Laguntza **tekniko espezializatua**, **software** eguneratzeak eta **berme-zerbitzua** eskainiko ditugu, bezeroaren fideltasuna eta scanner-aren errendimendu ona bermatzeko.